



LEP

Nafarroa

2021

Lanbide Heziketako irakasle
teknikoen kidegoan sartzea



www.steilas.eus

LEP Nafarroa 2021

Abenduaren 18ko 302/2020 Ebazpena argitaratu ondoren

> Deialdiaren orrirako esteka <

Eskabideak aurkezteko epea: 2020ko abenduaren 22tik 2021eko urtarrilaren 11ra

Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoan sartzea

Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegorako plazak: 122

122 plaza horietatik, 115 sarrera librekoak dira, eta 7 %33ko edo hortik gorako desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatuak.

- **Sarbide libre:** betebeharrak orokorrak eta titulazio baldintzak betetzen dituzten pertsonak, bai eta karrerako funtzionarioak ez direnak izena ematen duten kidegoan ere.
- **Desgaitasun-erreserba:** baldintza orokorrak eta espezifikoak betetzen dituzten eta % 33ko edo hortik gorako desgaitasuna aitortuta duten izangaiak, betiere maila orokorrean irakaskuntzan jarduteko gaitasun funtzionala badute eta lortu nahi den kidegoari eta espezialitateari dagokienez. Ezingo dira kidego, espezialitate eta hizkuntza berean lehiatu, sarrera libreko prozeduraren bidez.

Espezialitatea	Hizkuntza	Librea	Erreserbakoa	Guztira
Sukaldaritza eta pastelgintza	C	10	1	11
Arotz-lanak eta altzariak egin eta instalatzea	C	5		5
Bero eta fluido ekipamenduen instalazioa eta mantentze-lanak	C	11	1	12
Instalazio elektroteknikoak	C	10	1	11
Instalazio elektroteknikoak	E	4	1	5
Ibilgailuen mantentze-lanak	C	10	1	11
Makinen mekanizazioa eta mantentze-lanak	E	3		3
Elikagaien elaborazioko lanak eta ekipamenduak	C	7		7
Ile-apainketa	C	9		9
Merkataritza prozesuak	C	12	1	13
Administrazio kudeaketako prozesuak	C	9		9
Administrazio kudeaketako prozesuak	E	7	1	8
Jatetxeko zerbitzuak	C	8		8
Soldadura	C	8		8
Irudiko eta soinuko teknika eta prozedurak	C	2		2

Lanbide heziketako irakasle teknikoen kidegoa

>> Txanda irekiko prozeduran eta desgaitasuna dutenentzako erreserban parte hartzeko berariazko betebeharrak <<

Baldintza orokorrak betetzeaz gain, (espainiar jatorria edo EB herrialde batekoa, 18 urte beteak izatea, eginkizunekin bateraezina den eritasun edo muga fisikorik edo psikikorik ez izatea, diziplina espediente bidez zerbitzutik berezia ez izatea, kidego bereko karrerako funtzionario edo praktiketako funtzionario ez izatea, edo izendatzeko esperoan ez egotea, Sexu-delitu batengatik epai irmo bidez kondenatua ez izatea), txanda irekian parte hartzeko betebeharrak honakoak dira:

- Unibertsitateko diplomatura titulua, Arkitekto Teknikoaren edo Ingeniari Teknikoaren titulua edo dagokion graduiko titulua.
- Unibertsitateko diplomatura titulua, Arkitektura Teknikoa, Ingeniaritza Teknikoa edo Gradu titulu baliokidea, edo:

> II. Eranskinean ezarritako titulazio baliokideak:

Espezialitateak	Titulazioak
Sukaldaritza eta Pastelgintza	Sukaldaritzako goi mailako teknikaria. Ostalaritzako teknikari espezialista.
Arotz-lanak eta altzariak egin eta instalatzea	Zurgintzako eta altzarigintzako goi mailako teknikaria. Arotzeriako eta altzarigintzako produktuak garatzeko goi mailako teknikaria. Industria mailako zurgintzako teknikari espezialista. Ebanista-teknikari espezialista. Zurgintzako teknikari espezialista. Galdaketako modelista-teknikari espezialista. Altzarien diseinu eta fabrikazioko teknikari espezialista.
Ibilgailuen Mantentze-lanak	Automozioiko goi mailako teknikaria. Ibilgailuen mekanika eta elektrizitateko teknikari espezialista. Automobilgintzako teknikari espezialista. Eraikuntza eta obretako ekipo eta makinaren mantentze-lanetako teknikari espezialista.
Makinen Mekanizazioa eta Mantentze-lanak	Mekanizazio bidezko produkzioiko goi mailako teknikaria. Makinak muntatu eta eraikitzeiko teknikari espezialista. Makina-erreminten mikromekanikako teknikari espezialista. Tresnen mikromekanikako teknikari espezialista. Neurketa sistemetako teknikari espezialista instrumentista. Tresneria eta muntaketa mekanikoetako teknikari espezialista. Armen mekanikako teknikari espezialista. Fabrikazio mekanikoko teknikari espezialista. Makina-erremintetako teknikari espezialista. Matrizegintzako eta moldegintzako teknikari espezialista. Kalitatearen montroleko teknikari espezialista. Mikromekanikako eta erlojugintzako teknikari espezialista.

Espezialitateak	Titulazioak
Ile-apainketa	Irudi pertsonaleko aholkularitzako goi mailako teknikaria. Ile-apainketako teknikari espezialista.
Jatetxe Zerbitzuak	Sukaldaritzako goi mailako teknikaria. Ostalaritzako teknikari espezialista.
Soldadura	Metalezko eraikuntzetako goi mailako teknikaria. Metalezko eraikuntzetako teknikari espezialista eta soldatzailea. Soldadurako teknikari espezialista. Soldatutako fabrikazioko teknikari espezialista. Egiturazko xafako galdaragintzako teknikari espezialista. Ontzi eraikuntzako teknikari espezialista. Ontzi marrazlea-teknikari espezialista.

- > Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoan sartzeko, eta soil-soilik Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak espezialitate bakoitzeko lehenbiziko lau deialdiak burutu ez dituenean, izangai hauek onartzen ahalko dira, orokorrean eskatutako titulazioa ez izan arren: deialdia egiten duen hezkuntza administrazioaren mendeko ikastetxe publikoetan gutxienez ere bi urtez irakasle lana egin dutela frogatu eta kasuan kasuko lanbide arlokoa den Lanbide Heziketako espezialitate batean teknikari espezialista edo goi mailako teknikari titulua duten izangaiak, bai eta Itsasoa eta Arrantza lanbide arloaren barruan, Alturako Patroi edo Kabotajeko Goi Patroi titulua duten izangaiak. Hauek dira deialdia agortu duten espezialitateak:
 - Instalazio Elektroteknikoak (gaztelaniaz) eta Administrazio Kudeaketako Prozesuak (gaztelaniaz) espezialitateetan lau deialdiak jada agortu dira.
 - Instalazio Elektroteknikoak (euskaraz), Irudiko eta Soinuko Teknika eta Prozedurak (gaztelaniaz) eta Ile-apainketa (gaztelaniaz) espezialitateetan, lehendabiziko deialdia da hau.
 - Makinen Mekanizazioa eta Mantentze-Lanak espezialitatea (euskaraz), Elikagaien Elaborazioko Eragiketa eta Ekipamenduak (gaztelaniaz), Merkataritzako Prozesuak (gaztelaniaz), Administrazio Kudeaketako Prozesuak (euskaraz) eta Jatetxe Zerbitzuak (gaztelaniaz) espezialitateetan, hirugarren deialdia da hau.
 - Sukaldaritza eta Pastelgintza (gaztelaniaz), Bero eta Fluido Instalazioak eta Ekipoak (gaztelaniaz) eta Arotz-lanak Egin eta Instalatzea (gaztelaniaz) espezialitateetan, hirugarren deialdia da hau.
 - Ibilgailuen Mantentze-lanak (gaztelaniaz) eta Soldadura (gaztelaniaz) espezialitateetan, laugarren deialdia da hau.
- Prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, eta Lanbide Heziketako irakasleen lanbide arautuetan jarduteko gaitzen duen unibertsitateko master titulu ofiziala edukitzea. Salbuespenak, 2009ko urriaren 1a baino lehen honako balditza hauetako bat lortu dutela egiaztatzea:
 - > Espezializazio Didaktikoaren titulu profesionala, Irakaskuntzarako Gaikuntza Agiria edo Irakaskuntzarako Gaitasun Agiria.
 - > Maisu-maistra titulua, Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diploma, Lehen Hezkuntzako maisu-maistrarena eta Pedagogia eta Psikopedagogiako lizentzia, edo baliokidea den eta prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa duen lizentziatura edo titulazioa.

- > Irakasle jardun izana, 2008-2009 ikasturtea bukatu baino lehen, 12 hilabetez gutxienez, behar bezalako baimena duten irakaskuntza arautuko ikastetxe publiko edo pribatuetan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan edo Batxilergoan, Lanbide Heziketan edo Hizkuntza Eskola Ofizialetan. 2014ko irailaren 1a baino lehen eta 12 hilabetez gutxienez, behar bezalako baimena duten irakaskuntza arautuko ikastetxe publiko edo pribatuetan, Lanbide Heziketako edo kirol irakaskuntzetako mailetan eta ikasketetan, lanean aritu izana egiaztatzen dutenek.

>> Hizkuntza eskakizunak <<

- Euskaraz eman beharreko lanpostuetan: Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) edo baliokidea.

Betekizuna eskuratu izanaren data:

Eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean.

Parte-hartzeko eskaera orria

Parte hartzeko eskaera telematikoki aurkeztuko da. "**Tramitatu**" botoia, 2020/12/22an aktibatuko da.

> Deialdiaren orrirako esteka <

Eskaera honetan hautatzen diren espezialitate eta hizkuntzak zehaztuko dira bai eta sarbiderako modua (librea, desgaitasuna dutenentzako erreserba) ere.

Izangaiek 20 egun natural izanen dituzte NAO n argitaratzen den egunetik kontatzen hasita (2020ko abenduaren 22tik 2021eko urtarrilaren 11ra).

>> Aurkeztu beharreko dokumentazioa <<

- 1) Nortasun Agiri Nazionalaren edo nortasun agiri baliokidearen kopia elektronikoa.
- 2) Erantzukizunpeko adierazpena, inongo Administrazio Publikoren zerbitzuetatik diziplina espediente bidez berezia ez dagoela edo eginkizun publikoetarako desgaitua ez dagoela adierazten duena.
- 3) Parte hartzen duen kidego, espezialitate eta hizkuntza bakoitzeko ordainketa-gutun bat.
- 4) Doktore, lizentziadun, ingeniari, arkitekto edo egokitzen den graduaren tituluaren kopia elektronikoa, edo hala behar denean, unibertsitateko diplomadun, ingeniari tekniko, arkitekto tekniko edo egoki den graduaren tituluarena edo irakaslanerako baliokidetzat jo daitekeen tituluarena, edo titulua eskuratzeko eskubideak ordaindu dituela frogatzen duen ziurtagiria.
- 5) Ebazpen honen I. tituluko bigarren oinarrian adierazitako prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa duela frogatzen duen dokumentazioa.

6) Euskaraz eman beharreko lanpostuak edo Euskal Hizkuntza eta Literatura (Nafarroa) espezialitateko lanpostuak eskuratu nahi izanez gero, EGA-Euskararen Gaitasun Agiriaren edo titulu baliokide baten kopia elektronikoa aurkeztu beharko da, edo titulua eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria.

7) Merezimendu bakoitza artxibo bakar batean, merezimenduaren erreferentzia izenarekin.

Merezimenduen baremoaren I. atala (irakasle lanetan emandako zerbitzuak) baloratzeko, zerbitzuak Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamenturako egin badira, Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuak ofizios aurkeztuko du zerbitzuen orria, izangai bakoitzaren espediente pertsonalean dagoen dokumentazioari jarraikiz, parte hartzeko eskaeran berariaz eskatu behar izan gabe. Aitzitik, beste hezkuntza administrazio edo zentro batean egindako zerbitzuak egiaztatzeko, kasuan kasuko zerbitzuen ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, merezimenduen baremoan ezarritakoarekin bat.

- **Beste nazionalitate bateko izangaiak:** 3-7. puntuetan aipatutako agiriez gainera, dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte: pasaportearen eta bisatuaren kopia elektronikoak, bisatuaren txartela edo salbuespen ziurtagiria eskatu izanaren ordezkagiria, bere herrialdean diziplina espedienterik edo zigor prozedurarik ez edukitzearen erantzukizunpeko adierazpena, eta gaztelaniaren ezagutza akreditatzen duen tituluaren kopia elektronikoa.
- **Desgaitasuna dutenentzako erreserba prozeduraren izangaiak:** gainera, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako Mendekoatasuna Baloratzeko eta Orientatzeko Taldeek emandako ziurtagiria (edo Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuko, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionaleko, Ekonomia eta Ogasun Ministerioko edo Defentsa Ministeriokoa), %33ko edo hortik gorako desgaitasuna, ezintasun iraunkorra, guztikoa, erabatekoa, baliazintasun handia edo baliokidea akreditatzen duena.
- **%33ko edo hortik gorako desgaitasuna duten izangaiak:** gainera, desgaitasun maila akreditatuko duen ziurtagiria, eta orri aparte batean, eskatzen diren denbora eta baliabide egokitzapenak.

Agirien formatua eta egiaztapenari dagokionez, izangaiek betebeharrak edo merezimenduak frogatzeko aurkezten dituzten agiriak kopia elektronikoak izan behar dira, argitalpenen kasuan salbu. Administrazioak noiznahi eskatzen ahalko dizkie izangaiei parte hartzeko eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentazioaren jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak.

Parte hartzeko eskaerarekin batera, azterketa eskubideengatik, aukeratu nahi den kidego, espezialitate eta hizkuntza bakoitzeko 40 euro ordaindu izanaren ordainagiria aurkeztu beharko da ordainketa gutunaren bidez; erdua www.nafarroa.eus helbidean dago. Izangaiek Interneteko web-orri horretan sartu eta ordainketa gutuna bete beharko dute beren datuekin, eta "kontzeptuaren azalpen" gisa parte hartu nahi duten kidegoa, espezialitatea eta hizkuntza jarriko dituzte. Ordainketa gutuna inprimatu eta ordainketa eginen dute edozein banketxetan, edo bankutik modu telematikoa egin, azkenik, ordainagiria erantsi beharko dio parte hartzeko eskaerari.

>> Izengaien onarpena eta hautaketa prozesuaren garapena <<

1. Onartuen, baztertuen eta gaztelaniaren ezagutza proba egin behar dutenen behin-behineko zerrendak argitaratzea.
2. Argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, balizko 10 egun, erreklamazioak aurkezteko eta akatsak zuzentzeko, www.nafarroa.eus helbidearen bidez.

3. Onartutakoen, baztertutakoen eta gaztelaniaren ezagutza proba egin behar dutenen behin betiko zerrenda argitaratzea probaren datarekin eta tokiarekin. Ebazpen horren aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Lehendakaritza, Berdintasun, Funtzio Publiko eta Herrizaingo sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.
4. Merezimenduen behin-behineko zerrenda argitaratzea. Merezimenduak zuzentzeko aktei buruzko erreklamazioak aurkeztu eta/edo akatsak zuzendu ahal izango dira 10 egun balioduneko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Ez da merezimendu berririk kontuan hartuko.
5. Merezimenduen behin betiko zerrenda argitaratzea. Ebazpen horren aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Lehendakaritza, Berdintasun, Funtzio Publiko eta Herrizaingo sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.
6. Oposizioan aurkezteko ekitaldi bakarraren datak eta parte-hartzaileak gutxienez zazpi egun natural lehenago argitaratzea, data, ordua eta lekua adierazita. Aurkezpen ekitaldi honetan programazio didaktikoa entregatu beharko da (2. probaren A zatia).
7. Epaimahaiaren esleipenak gutxienez 7 egun lehenago argitaratuko dira, deialdi bakarretarako zozketatik atera den letren ordena eta deialdi kolektiboetarako data, ordua eta lekua (1. proba: azterketa praktikoa eta teorikoa) eta deialdi bakarrak (2. proba: programazioaren eta unitate didaktikoaren aurkezpena eta defentsa).

Administrazioak espezialitate bereko hizkuntza desberdinetan bakarrik bermatzen du azterketak egitea, eta ez parte-hartzaileek izena eman duten espezialitate guztietan.

8. Probak amaitutakoan, izangaiek lortutako puntuazioak argitaratuko dituzte epaimahaiak. Horien aurka, erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira 2 egun balioduneko epean. Epaimahaiak erreklamazioa berrikusiko du eta behin betiko puntuazioak argitaratuko ditu. Puntuazio horiei gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaie, hilabeteko epean, Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariaren aurrean.
9. Oposizio – eta lehiaketa-prozesua gainditu duten pertsonen zerrenda argitaratzea eta plazari uko egiteko epea abuztuaren 31ra arte, egun horretan argitaratuko baita gaindituen zerrenda osagarria. Hautatutako pertsonen 5 egun baliodun izango dituzte, hautatutako pertsonen zerrendak argitaratzen direnetik aurrera, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa aurkezteko. Hainbat espezialitate eta hizkuntzatan hautatuak izan direnek 5 egun baliodun izango dituzte horietako bati uko egiteko. Hala egiten ez badute, praktiketako funtzionarioen destinoen hautaketaren arabera plaza aukeratzen dutela ulertuko da.
10. Praktiketako funtzionarioak izendatzea eta praktikaldia hastea, sartzeko hautaketa-prozesua edo antzeko espezialitateak gainditu dituen espezialitate eta hizkuntza bererako behin-behineko destinoa hautatuz. (Salbuetsita egongo dira karrerako irakasle funtzionario gisa gutxienez ikasturte batean lan egin dutela egiaztatzen duten pertsonak, ebazpena eman eta 5 egun balioduneko epean eskaera eginda).
- 11º Praktikaldiaren ebaluazioa (aldi baterako ezintasunagatik, amatasun bajagatik, eszedentzia bereziagatik edo antzeko arrazoiengatik luzatu ahal izango da), Kalifikazio Batzordeari eskaera eginez.
12. Fasea gainditu duten karrerako funtzionarioak izendatzea.

Prozesuen garapena

Otsailaren 23ko 84/2018 Errege Dekretuan jasotzen diren aldaketa nagusiak, otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretua aldatzen duena (sarrera, sarbide eta espezialitate berriak eskuratzeko arautegia onartzen duena eta sarrera araubide iragankorra arautzen duena):

- Probak baztertzailak izanen direnez, proba guztietan eta dagozkien atal guztietan parte hartu beharko da.
- Hautapen proba guztiak hizkuntza espezialitatei edo espezialitatea emango den hizkuntzari dagokion hizkuntzan egingo dira (abenduaren 27ko 17/2017 Foru Legea).

Oposizioa Fasea %60		Lehiaketa fasea %40
1 Proba	2 Proba	Merituak (I. Eranskina)
A Atala. Praktikoa. 5 ordu gehienez %50 (gutxienez 2,5) V. Eranskina B Atala. Gaia. 2 ordu %50 (gutxienez 2,5) 26-50: 4 bolatxo. > 50: 5 bolatxo. III. Eranskina	VI. Eranskina A Atala. Programazioa. Gehienez. 30 minutu guztizko %30 (gainditzeko 5 puntu, 2,5 gutxienez batzbestekoa egiteko) B atala. Unitatea. Gehienez 30 minutu guztizko %70 (gainditzeko 5 puntu, 2,5 gutxienez batzbestekoa egiteko) - Unitate Didaktikoa edo Lan Unitateak Epaimahaikideen galderak (A, B eta galderak gehienez: ordu 1 eta 15 minutu)	Lan Esperientzia 7 puntu gehienez Prestakuntza Akademikoa 5 puntu gehienez Besteak 2 puntu gehienez
Gutxienez 5 puntu	Gutxienez 5 puntu	Gehienez 10 puntu

> IV. Eranskina Programazio didaktikoaren eta unitate didaktikoaren jarraibideak <

Oposizio fasea epaimahaiaren aurrean aurkezpen ekitaldi bat eginez hasiko da. Ekitaldi horretan, programazio didaktikoa aurrez aurre entregatu beharko da, eta beste pertsona batek ordezkatzea ez da baliozkoa izango. Ekitaldia 2020ko maiatzaren 10a baino lehen izango da.

Merezimenduen behin-behineko balorazioak erreklamatzeko idazkia aurkeztu ahal izango da 10 egun balioduneko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

1. probaren behin-behineko puntuazioetarako erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira, argitaratzen denetik 2 egun balioduneko epean.

Behin betiko puntuazioak argitaratzen direnean, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango da, argitaratzen direnetik hilabeteko epean.

Merezimenduak baloratzeko baremoa (I.Eranskina)

Merituak (gehienez 10 puntu)

I. Atala. Irakasle lanetan emandako zerbitzuak (gehienez 7 puntu)

- I.1. Kidegoko espezialitateetan, ikastetxe publikoetan: urte bakoitzeko 0,7 puntu (hilabete bakoitza/ urteko zatiki bakoitzeko 0,0583 puntu).
- I.2. Beste kidegoetako espezialitateetan ikastetxe publikoetan: urte bakoitzeko 0,35 puntu (hilabete bakoitza/urteko zatiki bakoitzeko 0,0292 puntos).
- I.3. Kidegoko hezkuntza maila bereko espezialitateetan, bestelako ikastetxeetan: urte bakoitzeko 0,150 puntu (hilabete bakoitza/urteko zatiki bakoitzeko 0,0125 puntu).
- I.4. Beste kidegoko beste hezkuntza maila bateko espezialitateetan, bestelako ikastetxeetan: urte bakoitzeko 0,100 puntu (hilabete bakoitza/urteko zatiki bakoitzeko 0,0083 puntu).

Gehienez 10 urte hartuko dira kontuan.

II. Atala. Ikasketak (gehienez 5 puntu)

2.1. Alegatutako tituluari dagokion espediente akademikoko batez besteko nota:		
Otik 10erako ESKALA	Otik 4rako ESKALA	
6tik 6,99ra	1,5etik 1,99ra	1
7tik 8,49ra	2tik 2,74ra	1,250
8,5tik 10era	2,75etik 4ra	1,500
BATEZ BESTEKO NOTA ZENBAKIEN BIDEZ ADIERAZTEN EZ BADA, BALIOKIDETZA HAUEK APLIKATUKO DIRA:		
Nahiko	5,5	Ongi
		6,5
Oso ongi	7,5	Bikain
		9
Ohorezko matrikula	10	
2.2. Graduondokoak, Doktoretza eta Aparteko Sariak:		
2.2.1. Ikasketa aurreratuen ziurtagiri-diplomagatik, master titulu ofizialagatik, ikertzeko nahikotasunagatik edo beste edozein titulu baliokiderengatik (baldin eta titulu horiek irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko baldintza gisa eskatu ez badira).		1
2.2.2. Doktore tituluak.		1
2.2.3. Doktoretzan aparteko saria lortzeagatik.		0,5
2.3. Araubide bereziko irakaskuntzetako eta berariazko lanbide heziketako titulazioak:		
2.3.1. Lehen zikloko tituluak.		1
2.3.2. Bigarren zikloko tituluak.		1
2.4. Araubide bereziko irakaskuntzetako eta berariazko lanbide heziketako titulazioak:		
a/ Musikako edo Dantzako titulu profesional bakoitzeko.		0,500
b/ B2 mailako ziurtagiria (eta C1 eta C2, 3. atalean baloratzen ez diren hizkuntzak).		0,500
c/ Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi mailako teknikari titulu bakoitzeko.		0,200
d/ Lanbide Heziketako goi mailako teknikari titulu bakoitzeko.		0,200
e/ Goi mailako kirol teknikari titulu bakoitzeko.		0,200

III. atala. Beste meritu batzuk (gehienez 2 puntu)

3.1. Etengabeko prestakuntza (gehienez 1 puntu):		
10 orduko formazioengatik.		0,020
3.2. Euskararen, ingelesaren, frantsesaren eta alemanaren ezagutza egiaztatze tituluak:		
3.2.1. C2.		1
3.2.2. C1.		0,750
3.2.3. B2.		0,500

Proben edukiak

1. 1. Probaren A atalaren jarraibideak:

Proba praktikoa (V. Eranskina)

> V. Eranskina <

Izangaiei proba bat aurkeztuko zaie, espezialitate bakoitzeko ariketa bat edo gehiago barne. Ariketa bat baino gehiago sartuz gero, proba praktikoa puntuazio osoa zati berdinetan banatuko da, ariketa bakoitzari dagozkionak.

2. 1. Probaren B atala:

Gaiak (gai ofizialak III. eranskina)

> III. Eranskina <

3. 2. Probaren A atalaren jarraibideak:

Programazio Didaktikoa (VI. Eranskina)

> VI. Eranskina <

Programazio Didaktikoaren kopia bat aurkeztuko da modu pertsonalean, epaimahaiaren aurrean, eta ordezkaritza ez da onartuko (inoiz ez maiatzaren 10 baino lehenago).

Programazio didaktikoaren eta unitate didaktikoaren aurkezpena prestatzeko aldez aurretik ordu beteko denbora egongo da. Aurkezpenetarako egoki iruditzen den material osagarria erabili ahal izango da, pertsona bakoitzak jarritakoa. Programazioaren kopia bat entregatuko zaio epaimahaiari aurkezpen ekitaldia baino lehen eta beste kopia berdinekin bat, azalpen ekitaldian. Programazioaren aurkezpenaren aurkezpena gehienez 30 minutukoa izango da.

Programazio Didaktikoaren atal formalak:

- Gehienez 50 folioko luzaera. DIN-A4 formatuan, alde bakar batetik idatziak, lerroarte arruntarekin, Arial letra erabilita, 12 puntuko neurrian konprimitu gabe.
- Grafiko, taula, goiburu eta orri-oinetan letra Arial 10 puntuko neurrian joan daiteke.
- Portadak diseinu libre izan dezake.
- 10 unitate zenbakitu eduki beharko ditu.
- Programazio didaktikoko portada, kontraportada eta aurkibideak ez dira 50 folio zenbaketan sartzen.

Parte hartzen den espezialitatearekin lotutako arlo, ikasgai, modulu, eremu edo proiektu baten curriculumari egingo dio erreferentzia.

Zehaztuko dira:

- Helburuak.
- Gaitasunak.
- Edukiak.
- Metodologia.
- Hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleei arreta emateko moduak.
- Ebaluazio estandar eta ikaskuntza emaitza ebaluagarriak.
- Bere kasuan, gaitasunen lorpenen mailarako ebaluaketa irizpideak eta helburuen lorpena.

4. 2. Probaren B atalaren jarraibideak:

Unitate Didaktikoa (VI. Eranskina)

> VI. Eranskina <

Unitate didaktikoa prestatu eta azaltzeko, izangaiak nahi duen laguntza-materiala erabiltzen ahalko du, berak ekarria, eta gidoi moduko bat, orri batekoa gehienez, azalpena bukatutakoan epaimahaiari entregatu beharko diona.

Honako hauek zehaztu beharko dira:

- Ikaskuntzaren emaitzak.
- Edukiak.
- Irakasteko/ikasteko jarduerak eta berreskuratzeko jarduerak.
- Metodologia eta antolaketa alderdiak.
- Ebaluaziorako erreferenteak.
- Ebaluazio prozedurak.
- Ebaluazio tresnak.
- Kalifikazio-irizpideak.
- Ebaluazio jarraiturako eskubidea galdu duten ikasleentzako ebaluazio-tresnak eta sistemak.

Aurreko paragrafoan azaldutakoaz gain, lan-unitateak ere aipatu ahal izango dira, eta kasuan kasuko lanbide-profilari dagozkion gaitasun-unitateei lotutako ikaskuntza-emaitzekin lotu beharko dira.



www.steilas.eu

Araba

Eulogio Serdán 5
01012 **Gasteiz**
☎ 945 141 104 📠 945 144 302
araba@steilas.eu

UPV/EHU Arabako Campusa
Ikasgelategia, 204. Bulegoa
01006 **Gasteiz**
☎ 945 013 397 (3397)
steilas-araba@ehu.es

Bizkaia

Jose Maria Eskuza 1, 1 esk.
48013 **Bilbo**
☎ 944 100 298 📠 944 101 360
bizkaia@steilas.eu

UPV/EHU Bizkaiko Campusa
Liburutegiko eraikina 1. solairua
48940 **Leioa** (Bizkaia)
☎ 946 012 434 (2434)
☎ 946 012 435 (2435)
steilas-bizkaia@ehu.es

Gipuzkoa

Basotxiki 30-34 atz.
20015 **Donostia**
☎ 943 466 000 📠 943 453 627
gipuzkoa@steilas.eu

UPV/EHU Gipuzkoako Campusa
Ignacio M^a Barriola eraikina
Elhuyar Plaza 1
20018 **Donostia**
☎ 943 018 436 (8281)
📠 943 018 140
steilas-gipuzkoa@ehu.es

Nafarroa

Joaquin Beunza, 4-6 behea
31014 **Iruñea**
☎ 948 212 355 📠 948 229 790
nafarroa@steilas.eu

